

International Theatre Institute ITI

World Organization for the Performing Arts

UNESCO, 1 Rue Miollis, FR-75732 Paris Cedex 15
iti5@iti-worldwide.org / www.iti-worldwide.org



2011ko Antzerkiaren Nazioarteko Eguneko mezua

Jessica A. Kaahwa

Gaurko topaketa, komunitateak mobilizatzeko eta desberdintasunen gainetik aurrera egiteko antzerkiak daukan itzelezko gaitasunaren benetako isla da.

Noizbait imajinatu duzu antzerkia bakerako eta adiskide- tzeko tresna eraginkorra izan litekeela? Gatazka bortitzetan sartuta dabiltzan munduko guneeetan bake- misioak egiteko, hainbat herrialdek izugarritzko diru-kopuruak xahutzen dituzten bitartean, antzerkiari gutxi errepara-tzen diogu gatazkak maneiatzeko eta eraldatzeko banakako aukera gisa. Nola lortuko ote dugu Ama-lurreko herritarrok bake unibertsala, horrexetarako erabiltzen ditugun baliabideak kanpoko boterengandik, erpresioak antza, etortzen badira?

Antzerkia beldurrak eta mesfidantzak jota dagoen gizakiaren ariman sotiltasunez sartzen da, bakoitzak daukan norberari buruzko irudia aldatuz, gizabanakoari aukera sorta emanaz eta beraz, komunitateari ere bai. Eguneroko errealitateak zentzudunak izan daitezke, eta bien bitartean, etorkizun zalantzarriari aurrea har diezaioke. Jendearen egoeren politikan parte har dezake modu zuzen eta errazean. Barneratzailea den heinean, antzerkiak aurre-kontzeptu okerrak gainditzeko gaitasuna daukaten esperientziak aurkez ditzake.

Horretaz gain, antzerkia ideiak defendatzeko eta susta-tzeko bide egiaztatua da, kolektibo moduan dauzkagunak eta urratzen direnean borrokatu nahi ditugunak.

Etorkizun baketsuari begira, baliabide baketsuak erabiltzen hasi beharko dugu, bakea eraikitzekeo prozesu horri gizabanako bakoitzak egin dizkion ekarpenak onartzeko, errespetatzeko eta ulertzeko balio dutenak. Antzerkia bakeak egiteko eta adiskidetzeko mezuak bidaltzeko balio duen hizkuntza unibertsala da.

Parte hartzaileak aktiboki akuilatuz, antzerkiak arima askok aurre-kontzeptuak deusezta ditzaten eragin dezake, eta hortaz, gizabanakoari berriro jaiotzeko aukera ematen dio, berraurkitutako ezagutza eta errealitateetan oinarritutako erabakiak har ditzan. Beste arte-moten artean antzerkiak aurrera egin ahal izateko, aurrerapauso sendoa eman behar dugu egunerokotasunean txertatzeko, gatazka eta bakeari buruzko premiazko gaiak hartuta.

Gizartearen bilakaera eta komunitateen aldakuntza bila-tzeko asmoz, dagoeneko badago antzerkia gerrak suntsitu dituen guneeetan, baita gaixotasun kronikoak edo

pobrezia pairatzen dituzten herrien artean ere. Badago istorio arrakastatsuen hazkundera, non antzerkiak publikoa mobilizatzea lortu duen, kontzientzia egiteko eta gerra-osteko traumak dituzten biktimei laguntzeko. Dagoeneko badira Antzerkiaren Nazioarteko Institutua bezalako kultura-plataformak, "jendartean bakea eta adiskidetasuna sendo-tzea" helburu duena.

Antzerkiaren gaitasuna ezagutuz gero, iruzurra da gureak bezalako sasietan isilik jarraitzea eta bonbak bota eta armak dituztenak gure munduko bake-zaindariak izatea onartzea. Nola izan daitezke alienatzeko tresnak bakerako eta adiskidetzeko tresnak ere bai?

Antzerkiaren Nazioarteko Egun honetan, perspektiba horretan hausnartzeko gonbitea egiten dizuet baita elkarrizketa, gizartearen bilakaera eta aldaketarako antzerkia tresna unibertsal gisa erabiltzeko ere. Nazio Batuek, armak eskuetan, munduan zehar bake-misioetarako diru kopuru ikaragarriak xahutzen dituen bitartean, antzerkia berezko aukera da, errukitsua, merkeagoa eta askoz ere boteretsuagoa.

Baliteke bakea ekartzeko bide bakarra ez izatea, baina bake-misioetan antzerkia txertatu beharko litzateke, tresna eraginkor gisa.

Itzulpena: Iñaki Ziarrusta/www.artezblai.com